

eusGara

Arratiako enpresetan zerbitzua eta beharra euskaraz

2019ko abendua



ZER DA eusGara

eusGara proiektua Arratiako enpresei zerbitzua eta lana hobetzen laguntzeko egitasmoa da, ERROTA Fundazioak bideratzen duena.

Hizkuntza kudeaketa hobetu eta euskararen erabilera handitzeko zerbitzuak eta laguntzak eskaintzen dira enpresa bakoitzaren helburu, ezaugarri eta erritmoetara egokitutakoak, enpresak berak aukeratutako arloetan.

Horretarako, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza hobetzeko aukerak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen da:

- Enpresaren irudia, errotuluak, publizitatea eta ingurune digitala.
- Bezeroa eta herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanak.
- Laneko dokumentuak, aplikazio informatikoak eta bestelako tresnak.
- Barne komunikazioa, batzarrak eta langileen arteko idatzizko eta ahozko harremanak.
- Pertsonen kudeaketan erabiltzen den dokumentazioa.
- Administrazioarekiko harremanak.
- Hizkuntzak txertatu langileen eta sistema orokorraren kudeaketan.

Horiek aurrera eramateko honela egiten ari gara:

- 1- eusGara egitasmoko teknikariek harremanetan jarri.
- 2- Enpresaren egoera aztertu eta beharrak identifikatu.
- 3- Enpresaren lehentasunak eta eusGara egitasmoak emango dion laguntza zehaztu. Hitzarmena sinatu.
- 4- Lankidetzak gauzatu.
- 5- Lankidetzak ebaluatu. Lantalde zabal eta publikoan parte hartzeko aukera.

JARRAIPEN BATZARRAK

Proiektuaren nondik norakoak zehazteko eta egindako bidea ikusteko jarraipen bilerak egin dira. Bileretan proiektuaren inguruko informazioa, berriak eta aurrerapausoak azaldu dira besteak beste; baita eman beharreko pausoak adostu ere. Hala, oso garrantzitsua izan da arduren banaketa egitea zereginak ahalik eta ondoen bideratzeko. Horretarako, arduraren banaketa garrantziaren eta hurbiltasunaren arabera antolatu da: alde batetik, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta udalekin Errotako arduraduna jarri da harremanetan; eta bestetik, proiektuaren

kudeaketaz, euskarriak sortzeaz, diagnostiko eta lan ildoen proposamena egiteaz, horien jarraipena gauzatzeaz, aholkularitza eskaintzeaz, enpresa eta bestelakoekin harremanetan jartzeaz Ahize-AEKren teknikarien ardura izan da.

Orotara 9 jarraipen bilera egin dira Areatzan, Errotaren egoitzan, eta bertara Ahize-AEK-ko kideak zein Errotako koordinatzailea bertaratu dira.¹

BITARTEKOAK

2018an sortutako materiala egokitu da behar izanaren arabera, 2019an berriak sortu dira eta horien zabalpen zein erabilerari eman zaio garrantzia 2019an.

Honakoak izan dira enpresei emandako euskarri eta bitartekoak:

- Enpresa bakoitzak bere planaren jarraipena egiteko taula osatu da euskaraz zein gazteleraz.
- Enpresetan aztergai izango diren elementuen zerrenda osatzeko fitxa.
- 2019an hitzarmena sinatutakoei diagnostikoa eta aurrera begirako proposamena.
- Enpresan langileen artean zabaltzeko esku-orriak (enpresei lehen bisitan ematen zaiena).
- Sarean dauden aukerak eskura izateko taula arloka banatuta.
- Posta elektronikoetarako sinaduran jartzeko datuen babeserako testua hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelera, ingelesa).
- SEPA bi hizkuntzetan (euskaraz eta gazteleraz).
- Lanerako idazki ereduak: bezeroei begirakoak (txekeak, ordainagiriak, informazioa edo materiala eskatzekoak, gutun egiturak eta esaldi ereduak, aurrekontuak, fakturak, emate-agiriak, egiaztagiriak, kontratuak); eta langileei begirakoak (nomina kontzeptuak, berrikusketa dokumentuak, bilera-deiak eta akta ereduak).
- Erreklamazioak egiteko kartel eta orrien informazioa eman.
- Telefonoa hartzeko elkarrizketa ereduak.
- Kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa.
- Itzulpen zerbitzua: batetik, egunerokoan erabiltzen dituzten ohiko idazki, dokumentu, errotulu eta abarrena; eta bestetik, web gunea itzultzeko zerbitzua.

¹Ikus jarraipen aktak I-IX

- Ziurtagiriei eta Erreferentzia Marko Estandarrari buruzko informazioa (eskatu dutenei).
- Lanean ari garen enprekin testigantzen bideo bat egin da, eredu bat euskaraz eta beste bat gaztelerazko azpigituluekin. Egitasmoa zabaltzeko eta ezagutarazteko bitartekoa da eusGara proiektuko youtube kanalean zabalduakoa.
- Errotako web gunean eusGara egitasmoaren atala sortu da.
- Hitzarmena sinatu duten enpresentzako motibazio eta trebakuntza saio bat prestatu da urtarrilean emateko.
- Proiektuaren QR-a sortu da.

AURKEZPEN BILERAK

Egitasmoa zabaltzeko eta azaltzeko bilerak antolatu dira 2018an harremanik izan ez dugun eskualdeko beste enpresa batzuekin. Horretarako, lehendabizi mezuz harremanetan jarri gara proiektua helarazteko eta hitzordua zehazteko. Ondorioz, egitasmoaren berri, modu batean edo bestean, 15 enpresari aurkezteko aukera izan dugu:

Telefonoz edo e-postaz azalduak:

- Wolko
- Alfe Cutting
- Teknikhapa
- Gorosti
- Crono rent
- Ikertek
- Indar

Aurrez aurre aurkeztutakoak:

- Soka Lanak SL
- Alojamientos y Hoteles H71 SL
- Ormazabal
- Cementos Lemona
- Industrias Galarza
- Industrias Bai (gerentzia aldaketa)
- Alkizabal
- Arratia Garbiketak

DIAGNOSTIKOA EDO JARRAIPENA EGITEKO BISITAK

Enpresekin batu eta proiektua azaldu eta gero, diagnostikoa² egin da egoera zein den jakiteko. Enpresa hauekin aurrez aurre batu eta beraiekin batera bete dira diagnostikoak.

Diagnostikoa bete duten enpresak (hitzarmen-kide berriak):

- Alojamientos y Hoteles H71 SL
- Alkizabal

2018 eta 2019, beraz, 13 enpresarekin aritu gara lanean, 11 enpresek 2018an sinatu zuten hitzarmena eta bik 2019an.

- 1- Industrias Bai
- 2- Comecaran
- 3- Tresnak SL
- 4- Ilunbe
- 5- Lekun Kautxao
- 6- Residencia Jandoniz
- 7- Ormaurre
- 8- Graficas Arratia Bi
- 9- Alinar Die Casting
- 10- Baserrigintza Berria
- 11- Alkizabal
- 12- Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia
- 13- Alojamientos y Hoteles H71 SL

Enpresa bakoitzaren aurrera pausoen jarraipena³ egiteko hiru bilera dei egin zaizkio enpresa bakoitzari eta behar izan duten aholkularitza eman zaie, helburuak betetzeko behar dituzten bitartekoen aurreikuspen bat egin da eta eskura utzi zaizkie erabil ditzaten (bitartekoak atalean azaldutakoak).

²Ikus hizkuntza egoeraren diagnostikoa

³ Enpresa guztien lorpenak ikusteko, ikus *Enpresen jarraipenerako fitxa* eranskina.

JARDUNALDI NAGUSIA

Proiektuan parte hartu duten guztiekin (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Errota, udalak eta enpresak) ekitaldi txiki bat egin dugu otsailean. Alde batetik, falta ziren hitzarmen orokorrak sinatzeko eta guztien arteko harremanak sendotzeko; eta Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko ikasleek lantokiko prestakuntza euskaraz egiteko lankidetzeta hitzarmena sinatzeko.

Hiru aldeak sinatu zuten hitzarmen bakoitza: batetik, Xabier Aldama, Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko zuzendaria; bestetik, enpresako ordezkaria; eta azkenik, Iratxe Goikoetxea, Errota Fundazioko koordinatzailea.

Ikasleek lan-mundurako jauzia den praktika aldia ere euskaraz gauza dezaten ahalbidetzeko, beharrezkoak diren baldintzak, testuingurua eta baliabideak eskuragarri jartzea adostu dute, ahal den neurrian, ikastegiak zein enpresa sinatzaileak.

Errota Fundazioa ikastetxearen eta enpresa sinatzailearen bidelagun izango da, eman beharreko pausoetan laguntza, aholkularitza eta bitartekoak eskainiz.

Honakoak izan ziren enpresa sinatzaileak: Ormaurre, Jandoniz, Ilunbe, Comecaran, Alinar eta Batz S. Koop (egitasmoan enpresa traktore bezala dabilena).

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN IZANDAKO HARTU-EMANA

Bai Euskarari Ziurtagiria eta Eusport enpresa jarri dira eusGara proiektuarekin harremanetan bilera bat egin eta elkarlanerako egon daitezkeen bideak aztertzeko.

Bestalde, Udaltop-en, Udaletako Euskara Zerbitzuen topagunean, proiektua aurkezteko aukera izan dugu, [eusGara: hizkuntza, balio erantsi Arratiako enpresen garapenean. Elkarlanaren emaitza](#). Izenpean.

LORPENAK LABUR-LABUR

- Hizkuntza-politika bateratua, EME ardatza oinarri hartuta.
- Euskara planak abian jartzea, ibilbide antzekoak.
- Planak bideratzeko sortutako bitartekoak.
- 13 enpresa sinatzaile.
- 370 langile baino gehiagorengan eragin
- Praktika aldiak euskaraz egiteko testuingurua sortzeko hitzarmenak sinatzea, Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia eta eskualdeko 6 enpresen artean.

